

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua ohiko jatetxe bat baino gehiago denez, nahiko funtsezko baliabide ditu. Baliabide materialak dira gehienak; baina benetan gure helburua lortzeko ezinbestekoa den baliabidea, intelektuala da.

### Baliabide fisikoak:

- 1) **Lursailak eta jatetxea:** “alkubi garden” enpresaren orubea eta bertan eraikiko dugun jatetxea (jada kristalera asko dituen eraikuntzaz baliatuko gara).
- 2) **Lehengaiak:** barazkiak, haragia, arrainak...
- 3) **Ekipamendu teknologikoa:** kontuak egiteko ordenagailu berezia,
- 4) **Erremintak:** baratzean erabiliko diren tresnak eta umeen ikastaroetan erabilitako materiala.
- 5) **Autokarabanentzako zerbitzuak:** ur zikinak hustutzeko makinak, ur garbia betetzeko depositua, elektrizitatea eta butanoak birkargatzeko makinak.
- 6) **Baratza:** erositako lursailaren zati batean eraikiko dugun baratza

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Juneren lidergotza eta antolakuntza, Anderren merkatuaren beharrak ulertzeko erraztasuna eta hizkuntzen ezagutza, Eiderren sare sozialen ezagutza eta umeekiko zaletasuna, Mikelen sukaldaritza ezagutzak eta Iranzuren motibazioa eta egoera zailei aurre egiteko erreztasuna.

Finantza baliabideak: hasierako inbertsioa eta bakoitzak jarriko dituen 20.000€-ak. Hasierako inbertsore pribatuek jarriko dute edota bankuari eskatutako mailegu batetik aterako dugu.